

ANGELUKO IKASLEAKOSO GUNEKO ERAKASKERA1996-97. IKAS-URTEALEHENBIZIKO ERAKASPENA

1

① ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA.

- 1) Azeriak zer nahi zuen iragan?
- 2) Iragan nahi zuena noren laguntzarekin?
- 3) Xalantzaina izoratu zuena?

AZERIA ETA XALANTZAINA

Behin Azeria ur-hégian gertatu zen eta igerika ez jakinez, hor zagon nola iraganen zuen ibaia.

Hainbertzenarekin ikusten du haratxago xalant xume bat eta bere pentsatzen du xalantzaina laster agertuko zela nunbaitik.

Ba eta hola gertatu.

bizkarrean

Gizon bat etorri zen, bi arrain bizkarran ekarki.

Azeria hurbildu zitzaion:

—Agur, jauna! nahi nautzuke zerbitzu bat galdegin.

—Zoin?

—Uraz haraindirat pasa banindezazu laguntza ederra egin zinezaket eta ordainez gogotik sarista zintzaket.

—Ago ixilik, mentsa! Zer sari eman dezakek, trixtea!

—Hiru egia ikasiko dituzu ene ganik!

—Hire ganik gezurra segurago diagu egia baino. Halere, tira, igan hadi xalant huntara eta goazen.

Abiatzeko kenkan axeriak gizonari:

—Ilargiak argitzen du, ez haatik iguzkiak bezenbat. Gezurra duta?

—Ez, hori egia duk.

Ibai-erdotsutan azeriak xalant zainari:

—Urak ez du arnoaren indarrik. Ez dea egia?

—Bai, egia handia. Nahiago nikék pinta bat arno barrika bat ur baino!

Uraren bertze bazterrerat hurbil-hurbila zirenean, azeriak jauzi egin zuen leihorrerat, eta handik oihuka erran zion:

—Hirugarren egia: nik eman sariarentzat ez duzula moltsa ez handi ez ttipi baten beharrik.

Pour mémoire = Conditionnel I. Tutoiement

- Nik nikék (niken) = je l'aurais
 Harek bikék (biken) = il l'aurait
 Guk ginkék (giniken) = nous l'aurions
 Heiek likeie (likeien) = ils l'auraient
 Nahi nikék = je le voudrais

② ADITZ IKASKUNTZA.

31. Hor zagon 32. Nahi nautzuke
 33. Pasa banindezazu 34. Egin zinezaket
 35. Zintzaket -- 36

31. EGON. Indicatif Imparfait.

Ni mindagon = je restais

Hi mindagon =

Zu zinanden =

Hura zagon =

Guk ginanden =

Zuek zinandezten =

Hek zauden. = etc.

32. UKAN. Conj. à 2^{ble} c/lt. Conditionnel I

O. S. — C. I. = Singulier

Zuri = à vous.

Nik nauzuke = je vous l'aurais } C. pers.

Harek lauizuke = il vous l'aurait } emanen

Guk ginauzuke = nous vous l'aurions } nauzuke

Heiek lauizukete = ils vous l'auraient } je vous le

33. UKAN. Conj. transit. à c/lt direct

= pronom personnel = Ni = me, moi.

Suppositif forme II.

Zuk UKAN banindezazu = si vous m'aviez

Harek — banindeza = s'il m'avait

Zuek — banindezazue = si vous m'aviez

Hek — baninderate = s'ils m'avaient

Conjugaison périphrastique :

ikus banindezazu = si vous me voyiez (un jour)